



Pernando
Barrena

«EAJ ez dago oraingoz marko berri batera joateko prest»

1965, Berriozar (Nafarroa). Txalaparta argitaletxeko editore izana: “Bokaziozko lanbidea. Politikan aritzeak literaturarekiko harremana moteldu dit” diosku. Lehenagoko lanbidera itzultzeko esperantza gorde du, alta. Batasuneko bozeramailea da; normalizazio politikoa xede, alderdiek osatutako negoziazio mahaian parte hartu du. Bere aita Berriozarreko alkatea izan zen behiala, PSNren izenean; azken hauteskundeetan EAE-ANVren zerrendan joan da.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban

Batasuneko Pernando Barrena bozeramailea kautelazko neurri-pean bizi da, bi astetan behin epaitegira joaten da sinatzera. Epailearen baimenik gabe ezin du Estatutik atera.

Fidantzapeko askatasunean bizi zara. Espetxeratua izateko beldur...
Ni neu ez naiz beldur.

Egoera politikoak are okerrera eginez gero, Arnaldo Otegiren ondoren zu zeu eraman zaitzakete barrura.
(...) [Irriak].

Zer erakutsi edo adierazi dizu Arnaldo Otegiren atxilotetak?

Arnaldo Otegi negoziazio mahaitik espetxera eraman dutela. Negoziazioan parte hartu duen alderdi sozialistak mintzakide bat atxilotzean hartu duen jarrera erakutsi digu. Prozesu elkarrizketatu batean alde batek beste aldeko mintzakide bat kanpo uztea ontzat ematen badu, ez da posible prozesua gauzatzea.

Prozesua kinkan dagoela esan duzu zuk, beraz prozesua egon badago oraindik.

Bai. Izan ere, su-etena eta prozesua identifikatzea akats oso larria da, prozesua eta su-etena ez dira sinonimoak, ETaren su-etena eta bortxakeriarik eza sinonimoak ez diren bezalaxe.

Su-etena amaitu da, prozesua berriz?

Prozesua geldituta dago. Neronek, grafikoki, honela ikusten dut prozesua: prozesuan lautadak, haranak eta gailurrak daude. Orain grafikoak harana erakusten digu.

Gainerako alderdiek ez dute zure edo Batasuneko ikuspegi bera, antza.

Bai, gainerako alderdiek elkarrizketa politikoak izan direla ukatzen dute.

ETAk egin dezake bat Batasunak duen ikuspegiarekin?

Ez dakit ETAREN jarrera dialektikoa zein den uneon. Nire pertzepzioa da azken urteotan ETA dela prozesua bideratzeko gehien jokatu duena. Gatazkari irtenbide elkarrizketatu politikoa bilatzeko nahi sendoa agertu du.

Ez gaude beraz, Lizarra-Garazi ondoko garaia errepikatzeko moduan.

Nire ustez, ez. Gaur gaurkoz behintzat, ez. Ez dago elementu objektiborik hori pentsatzeko.

Zein unean gaude orduan?

Une delikatu gaude, baina ez dago elementurik prozesua bukatu dela pentsatzeko. Une zailean gaude eta une honetatik ateratzeko eta prozesua norabide onean jartzeko zer egin daitekeen aztertzeke unean gaude.

Zer irakaspen edota ondorio aterako zenuke bizi izandako esperientziaz?

Hasteko, irakaspen hau: negozioa bati borondate onez ekin nahi badiozu, oso presente eduki behar da arerio politiko-

“PSOE su-etena behin betiko egoera balitz bezala aurrera egiten ahalegindu zen, konponbide demokratikoari bizkarra emanez”

aren jarrera zein den, bere lekuan jartzen saiatu behar duzu, baita saiatu ulertzen ere zein diren bere abaguneak akordioetara iristeko edo gutxienez beste posizioetara mugitzeko. Ezker abertzaleak hori egin du eta nahiko ondo antzeman ditugu zein diren alderdi sozialistaren marjinak edo tartak. Alderdi sozialistak hasieran, distentsio egoeran dena posible zela esan zuen. ETAREN su-etena iritsi zenean hori ahaztu zuen ordea. Areago, PSOE su-etena behin betiko egoera balitz bezala aurrera egiten ahalegindu zen, konponbide demokratikoari bizkarra emanez.

Ondorioa, berriz, hau: uneon funtsezkoa da alderdi sozialistak bete-behar batzuk ez dituela bete onar dezan. ETAk bide armatuari utziko dion bermea nahi du alderdi sozialistak eta nire pertzepzioa hau: baldin eta akordio politikoa gauzatzeko aukerak ematen baldin badira ETAk borondatea duela urrats oso-oso erabakiorrak emateko.

Anoetako Proposamena zen horretara iristeko bidea. Bi karrilen eskema ez dela bete dirudi. Erabat bete da.

Alde guztiek ez duzue eskema berdin interpretatu orduan.

Anoetako proposamena integrala da, prozesu oso baterako metodologia. Pro-

“ETAk su-etena eman zuenean ez genuen uste handik zortzi hilabetera ilegalak izaten jarraituko genuenik”.

zedurak elkarrizketak bi esparrutan garatzea proposatzen du.

Bi karrilak lotuta daude orduan. Erlazioa dute behintzat.

Hor dago korapiloa eta gakoa.

Hasieran bi karrilak martxan jarri ziren. ETA eta Espainiako Gobernuaren artean elkarrizketak eman dira batetik, bestetik baina bide politikoa ez zen behar bezala martxan jarri.

Zer gertatu zen?

Behin distentsio egoera lortuta, Gobernuak prozesua egonkortu eta su-etena betiko izatea nahi zuen: ETA desegingo den bermea izatea eta ETAk borroka armatua behin betiko utziko duela ziurtatzea. Gobernuak aurretik hartu zuen konpromisoari uko egin zion. Bi karril horiek elkarrizketarako esparru ezberdinak dira baina ez dira estankoak. ETA eta Gobernuaren arteko karrilean gertatzen denak alderdien artean dagoen harremanen bilakabidean berealdiko garrantzia dauka.

Antza, aldeek beren erara interpretatzen dute metodologia hori.

Bereziki Espainiako Gobernuak interpretatzen du bere erara. Bere interesa “hau ez da inongo konpromiso eta akordio baten ondorioz sortzen den egoera berri bat” esatea da, guztiz teknikoa den prozesua garatu nahi du Gobernuak.

Jarrera hori sei urtez iraun bide zuten harremanetan eta elkarrizketetan antzemango zenuten nolabait?

Gu kontziente ginen hori izan zitekeela alderdi sozialistaren tentazioa. Urratsak emateko ETAREN distentsioa behar zela zioen, distentsioa eman ondoren “dena da posible” zioen baita ere. Ni neu egon nintzen bilera haietan. ETAREN su-etena emango balitz “Alderdien Legeak ez lukeela zentzurik izango” zioten, baita “alderdien mahaia abian jartzeko oztoporik ez zela izango ere. Espetxe politika aldatzeko aukera litzatekeela” esan ere. ETAk su-etena eman zuenean ez genuen uste handik zortzi hilabetera ilegalak izaten jarraituko genuenik.

Zergatik ez dituzte horiek bete?

Kanpoko presioak eta barne tentsioak izan dituztelako, beraien arteko iritzi



BERRIOZAR, IRUÑEA ETA SARTAGUDAKO UDALAK

"Sartagudako ezker abertzaleak hautu egokia egin du"

BERRIOZARREKO ALKATEA —FRANCISCO JAVIER LASA— NA-BAIKOA DA. Berriozarren ANVk boz gehien jasotzeko aukera aurreikusi genuen. Ez da horrela izan baina emaitza onak lortu ditu. Na-Baik herrialde mailan izan den gorako eraginaren laguntza jaso eta alkatea lortu du. Honek PSNri alkatetza kentzea ekarri du eta berri ona da.

SARTAGUDAKO ALKATEA (PSNkoa ZENA) ANVREN BOZARI ESKER. Sartaguda herri berezia da. Adinekoek 1936ko gerraz hitz egiten dizute duela hamar urteko gertaera balitz bezala. Sentimendu errepublikarra eta eskuinari aurre egin beharra oso presente daude. UPNko zinegotziak Gerra Zibileko hiltzaileen ordezkari bezala ikusiak dira. Ezkerreko espainiarrek ezkerreko beste indarrekin aliantzak bilatzea normala da, Sartagudako ezker abertzaleko kideentzat ere nahiko "naturala" da. Egin duten hautua egokia da. Ni alkate [PSNk alderditik kanporatutako Martinez Benito] berriak esanarekin geratzen naiz: "Beste hautu bat egin banu ezin izango nuen kalean ibili".

IRUÑEKO ALKATEA: BARCINA. Ferrazeko [PSOEren egoitza nagusia] erabakia zen hasieratik. PSNko udal zinegotziek esanda dakit, Barcina alkatetzatik kentzeko hautua egin zutela. PSOEk ANVren demonizazioa bilatu du eta PSNko zinegotziek zaila zuten besterik egitea. Emaitza katastrofikoa da, Iruñean aldaketa emateko aukera zegoen, ez bakarrik forman —Barcina kenduz— bestelako edukietako politika egiteko aukera baizik. Orain erronka oposizio egokia egitea da bestelako politika gauzatzeko, oposizioa gehiengoak baita. PSNk dauka ardura nagusia zeregin horretan, noski.

kontrajarriak edo ziria sartu nahi izan digutelako.

EAJko EBBko buru Josu Jon Imazek Batasunak 180 graduak jarrera aldaketa izan zuela iazko udaldian esan zuen orriotan. Nafarroa izan da koska, antza. Ez da egia. Egia da ezker abertzaleak bere printzipioen jarrerari eutsi diola, baita malgutasun handiz jokatzeko prestutasuna azaldu ere. Guretzat funtsezkoena erabakitze eskubide ahalmena bilatzea izan da eta berau gauzatzeko modua aktibatzea. Esaterako, erabakitze eskubidetik kanpo ezein euskaldun ez geratzea, Hegoaldeko euskaldun guztiez ari ginenez, Nafarroakoak barne izan daitezen saiatu gara.

EAJk esatea ezker abertzalean aldaketa izan dela ez da serioa ez erreala.

EAJri elkarrizketak eten izanaren erantzukizuna egotzi diozue hartara.

Bai. Baina erantzule nagusia alderdi sozialista da, Espainiako Gobernua kudeatzen duen PSOE. Hala ere, alderdi sozialistak ez zuen jokatu duen bezala jokatzetik izango Josu Jon Imazek EAJren konplizitate gabe. Konparazio baterako Alderdien Legea PPK jarri zuen indarrean baina PSOEren konplizitate gabe ez zen indarrean sartuko. Hemen antzeko zerbait gertatu da.

Betikoan gaude, ezker abertzalea EAJri laguntza eske.

Agian gu inozoak gara, EAJ abertzalea zela pentsatzen genuen, autodeterminazioaren aldekoa...

Barkatu azkarrarena egitea eta nire iritzia ematea, nik ez.

Beren diskurtsoa edo batzuen diskurtsoa behintzat autodeeterminazio zalea da. Hiru aldeen arteko akordioan EAJk planteamendu abertzalea sustatzea espero genuen, jarrera deterministetara joko zuela. Erakutsi dute ez dela horrela, areago, saiatu dira alderdi sozialista ahalik eta modu erosoenean egoten. Oraingoz behintzat, EAJ ez dela marko politiko berri batera joateko prest jabetu gara, euskaldunon etorkizun politikoa ziurta dezakeen esparru batera.

Esparrura iritsi ondoren zer beharko litzateke akordioa gauzatzeko.


Otsailean elkarrizketa politikoa zirt edo zart egiteko unea iritsi zen. Ezker abertzaleak marko demokratikorako eskaintza egin zuen: hiru esparru politikoetako ordezkarien arteko intersekzio politikoa eman dadin, Hegoaldeko lau herrialdeen autonomia gauzatzeko eskubidea aitortzea proposatu genuen.

Zein epetan?

Epeei begiratu gabe, erritmoak eta baldintzak negoziagarriak dira, eskubideak aritu ginen. Gure harridurarako, eta gezurra badirudi ere, harritzeko gaitasuna daukagu, horri oposizio gogorrena ez zion alderdi sozialistak egin, EAJk baizik.

...?

Izan ere, lau herrialdeko autonomian EAJk botere politikoa, hegemonia eta babes eta sare sozio-ekonomikoa galtzeko beldur da. ■



DONOSTIA

Ekainaren 29tik uztailaren 8ra arte, Gipuzkoa Plazan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!